

Euskal Dendaren ikuspegi orokorra. Behean, artisau bat buztinarekin lanean. Eskuinean, ijitoen erakustokian, Jose Berrio zume-saskigintzan.

Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS



Euskal artisauak, ijitoak barne, sasoi betean 17. Euskal Dendan

Bost egunez euskal artisauen lana gertutik ezagutzeko aukera izango da Durangoko Merkatu plazan, Arbasok antolatuta atzo inauguratu zen 17. Euskal Dendan. Inoiz baino gazteagoa

dator aurtengo edizioa, 56 salguneetatik hogeibat estreinakoz izango baitira bertan. Disko eta Liburu Azokarekin bat eginez, ijitoen kultura izango da gonbidatu berezia.

Ane ARRUTI | DURANGO

«Kontuz karterarekin!», esan ziguten sartu bezain pronto. Modu honetan ekin zion atzo Durangoko 17. Euskal Dendak; ez, ordea, eskuluzeen beldur, beste urtebetez euskal artisauen lanek duten erakargarritasunagatik baizik. Bitxiak, oinetakoak, jantziak, gazta, txokolata, xa-

boiak, eskulturak... 56 dira aurtent bost egunez bisitatu, ezagutu eta euskal artisauen lana erosteko aukera eskaintzen duten saltokiak. "Artisautza eskura" izan da aurtengorako aukeratutako lema.

Arbaso elkarte antolatzailearen esanetan, «bisitariak konprobatu ahalko du antzinako lanbideak oraindik bizirik dau-

del eta, era berean, artisau produktuak onak direla. Halaber, gure herriaren balio kulturalak bultzatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko modu bat ere bada, eta galtzen doazen ogibideak biziraunarazteko».

Horren erakusle dira aurtent bertan izango diren hogeibat artisau berriak. Izan ere, Bernat Vidal Arbasoko lehendaka-

riaren ustetan, posible da krisiak modu positiboan eragin izana Euskal Dendari, «artisau berri asko daude eta gazte asko, batez ere Bizkaitik iritsita-koak. Nik uste izan daitekeela hainbat artisauk Euskal Denda probatzera etortzea erabaki izana, maila komertzialean izan dezakeen ospeagatik», esan zuen.

Saltokiez gain, hainbat ekin-tza antolatu dira parte hartzea sustatzeko asmoz. Umeentzako karamelu tailerrak izango dira esaterako; tailerrak ere egingo dira, marmol itxurako papera, paper birziklatua, koadernaketa eta «zapi parte-hartzailea»; eta, erakustaldiak ere bai.

Eta poltsikoekin kontuz ibiltzeko abisua emanagatik ere, artisauak, egungo egoera ekonomikoaren jakitun, prezioak mantentzeko apustua egin dute. «Mundu guztiak aztertzen du bizi dugun egoera eta prezioak bere horretan mantentzen ari gara. Oso sektore apala gara, zentzu guztietan, eta badakigu krisiak nola eragiten duen. Gure ekonomia iraupenekoa izan da beti. Ez ditugu premia-premia-zko produktuak saltzen eta ezin dituzu prezioak disparatu», esan zuen Vidalek.

Ijitoek euren txokoa

Ijitoek ohorezko tokia izango dute aurtengo Euskal Dendan. Sarreran, Kale Dor Kayiko eta Gao Lacho Drom ijitoen kolekti-

www.txalaparta.com

txalaparta

boetako kideen lana ezagutzeko aukera izango da. Horietan nabarmenena, zumezko saskigintza. Atzo bertan, Jose Berrioren romanizko *mistho avile* edo ongiatorria egin zitzaion. Ijito arabar hau Arbasoko bazkidea da eta bost egunez bertan izango da lanean. Ondoan, emakumeek eskuz egindako amantalak, zapiak eta beste zenbait jantzi ere izango dira ikusgai.

Ijitoek kafe tailer bat ere eskainiko dute. Antzinako erara prestatzen adituak diren emakumeek egingo dute, harria erabiliz, eta kafea dastatzeko aukera izango da.

Ijitoen alboan, zentzu bikoitza duen "Artisautzaren papera" izeneko erakusketa jarri dute. Batetik, paperarekin lan egiten duten artisauen produktuak ikus daitezke eta, bestetik, artisautzak gaur egungo gizartean duen eginkizunaz hausnartzera gonbidatu nahi dute bisitaria.

Erakusketa honetan, Montse Buso i Marsa artisau kataluniarren lanak izango dira, besteak beste, nazioartean ezagun egin duten bere marmol itxurako paper lanak. Paper birziklatua, tindatua... eta Kiliki nafarrak egiteko erabiltzen den harri-kartoi teknika ikasteko aukera ere izango da espazio honetan. Hiru tailer izango dira guztira: helduentzako koadernaketari buruzkoa, umeentzako paper birziklatua fabrikatze-

ari buruzkoa eta marmol itxurako paperaren erakustaldia.

Artetsu sariak

Goizez inauguratu zuten atzo Euskal Denda, eta iluntzean 2005az geroztik Arbasok banatzen dituen Artetsu sarien gala izan zen. Zortzigarren edizio honetan, Iñaki Alberdientzat izan zen Bizitza Osoa saria, ibilbide oso baten aitortpena egiten duena. Alberdi irundarra da eta 25 urte daramatza makilak egiten. 1991n, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkude Ofizialak diploma bat eman zion Iñakiri, artisau-lanean egin duen zeregina eta euskal kultura-ondarea aberastu eta iraunarazteko egindako ahallegina saritzeko.

Vidalek esan bezala, «zorteko» da, hurrengo belaunaldian ere erreleboa izango baitu, bere semeak jarraituko du etxepean duten tailerlean lanean.

Gainerako sariak Urduñako Udala eta Urduñako Olanar Elkartearentzat (Erakundeak Lagun saria), BBKko Gizarte Ekin-tzak sailarentzat (Gure Tradizioak Hedatzea saria), "El Correo"-rentzat (Hedabideak saria), Fernan Ruizentzat (Euskaren Sustatzea saria) izan ziren.

Euskal Denda igandera bitartean egongo da zabalik, goizetan 11.00etatik 14.30era eta arratsaldetan 16.30etik 21.00etara (igandean 20.00ak arte). Sarre-rak 1,30 euro balioko du.

Azotiker

Irati JIMENEZ Idazlea



Urtero Durangon orduak ematen dituzten saltzaileei azokari zer falta zaion galdetu diete eta % 80k «aulkiak» erantzun dute. Edo ez, baina fikzioen azoka ere bada Durango, fikziozko lanez bete eta euskal kulturaren fikziozko tamainara egokitu, eta estatistika baino fikzio ausartagorik ez dagoenez, imajinatu dezagun azokaren analisi sakon hori. 1.550 inkesta oinarri. Saltzaile, erosle eta «azokalariei» egin zaizkie galderak eta Durangora joatean lortu duten plazera neurtu da gero.

Gustura geratu dira 24 orduz zabalik aurkitu duten aparkalekuarekin? Pozik, azokan erosi dutena ohiko liburu-dendan baino merkeago izan dutelako? Eta erosketaren truke bazkaltzeko edo inguruko jatetxeren batean bazkaltzeko egin zaien beherapenarekin? Zer iritzi, eserleku eta besaulkiei buruz? Gustura Ahotseneak (zorioneko!) uharte izateari utzi diolako, eta azoka saltoki baino gertaleku bihurtu delako? Kontzertuz betea, zuzeneko emankizunez jantzia? Eskertu dute ekitaldietara joateko sortu den lau eguneko sarrera? Moldatu dira berokiak uzteko zerbitzuarekin? Doako Wifi-arekin arazorik? Eta gau osoko tren eta autobus zerbitzuarekin?

- Gustura geratu dira 24 orduz zabalik aurkitu duten aparkalekuarekin? Pozik, azokan erosi dutena ohiko liburu-dendan baino merkeago izan dutelako? Eta erosketaren truke inguruko jatetxeren batean bazkaltzeko egin zaien beherapenarekin?

Azotikerrek laster argitaratuko ditu emaitza guztiak, baina azokara doazenak, oro har, gustura geratzen direla nabarmendu dute inkestaren arduradunek. Euskal Herriko kultur-sorkuntza bete-bete gozaten dutela eta kontsumitzaile baino, haren parte sentitzen direla. Kexak ere badira jakina. Eta txantxak. Inkesta erantzun duenetako batek hotz handiegia egiten duela adierazi dio Azotikerreko galdegileari. «Udaberrian balitz...» esan du, eta irribarrea etorri zaio ezpain urdinduetara; «...edo Karibean...».

GARA DURANGOko AZOKAN


Tu mejor regalo de Olentzero está en Goienkale 59-60-61



KATIXA, katu botadunaren abenturak
Bilduma: 5 haur-ipu + DVDa + ipuinak gordetzeko karpeta
18,00 €



ARGIEN AROA
EL TIEMPO DE LAS LUCES
Egilea/Autor: Fermin Munarriz
15,00 €



* Zure liburuarekin Arnaldo Otegiak espresuki idatzitako agurra duen orri-markatzailea opari.



SENDEROS DE IPAR EUSKAL HERRIA
Autor: Juan Mari Feliu
18,00 €



GERNIKA
Memoria de un pueblo bajo las bombas y el fuego
Autores: Ingo Niebel-Juanxo Egaña
15,00 €

* Zure liburuarekin Basterretxearen lamina opari



GUÍA DE LA COSTA VASCA
Autora: Janire Arrondo
15,00 €

RECETAS PARA SEDUCIR
Autor: Juanjo López
15,00 €

